



A. LARRAMENDI-REN BIZITZA-REN

BERRI LABUR BAT.



ESTUDIO BIOGRÁFICO PREMIADO POR EL CONSISTORIO EUSKARO DE ESTA
CIUDAD CON UN OBJETO DE ARTE ALEGÓRICO EN LOS JUEGOS
FLORALES DEL PRESENTE AÑO.

ASIERA.

Amazazpi-garren eunkida-ren azken aldian, ainbeste maita degun izkuntzik gozo eta leunena, euskera gurea, baztertua, ezkutatua eta erbestetarren urruñ¹ azpian zegoalarik, batzuen ezjakiñagatik, eta beste batzuen nagitasunagatik, sortu zan euskal-mendietan gizon bat aigitaratzera zetorrena argigarria, izkuntzik onenen gañetik jartzera zetorrena izkuntzik ederrena, zetorrena gauza onen gañean ezjakiñak amaitzera, nagitasunak kentzera eta bere luma liraiñare-kiñ urruña uts eta alperrikakoak desegitera.

Jaungoikoa-ren letart² maitatiak biraltzen zigun biarren gendua-
nean, galdu ez zediñ euskera, galdu ez zitezen euskerarekin batean
aiñ elkartuak bizi diran oitura onak, galdu ez zediñ ainbeste giza-
ditan bizi eta garbiró gordetzen genduan fedea, Lauburuko bandera
lerden aidaturikan mundu zabalar erakutsi giñion fede santua.

Gizon andi onen izena guziok aitatzen degu maitasun onkaitua-
rekin,³ da ¡A. Larramendi!

1 Urruña=Desprecio.

2 Letarta=Providencia.

3 Merecido.

A. Larramendi-ren bizitza-ko berri labur bat izkribatzen asten naiz maitasun onek eramana, batere gotiritz¹ eta arrotasun gabe, dakidala lan an dala nere indar laburren gañetikakoa.

Chit berri guchirekin eta mintzoera² baten jabe ez naizala, iñola ere ezta izango A. Larramendi-ren diñakoa lancho au; baña eztet ere dalako sinisterikan. Zerbait bada, poztasun andi bat idukiko det ondar alecho bat eraman dedalako nere erriaren onrara: ezercho ere ezpada, izango alda norbait alecho au eramango duana.

I.

A. LARRAMENDI-REN JAYOTZA ETA LENENGO URTEAK.

Gipuzkoa-ko probinzi chit leñargia-n,³ ainbeste gizon andi, argitsu eta illezkor jayo diran lur ontan, Andoain-go uri pollita menderatzen duala ikusten da baserri bat Garagorri deitzen zayona. Baserri one-tan, Garagorri-ko eche purubean⁴ jayo zan A. Manuel Larramendi, milla seireun eta larogeita amar-eko Abendua-ren ogeita bostian. Bere gurasuak ziran Domingo Gara gorri eta Manuela Larramendi leñargiak, odol garbi eta aidetasun zabalekoak; zeintzuek zaintu eta azi zuten, orduan semiak zaintu eta azitzen ziran erara, Jaungoikoaren maitasun eta bildur santuan, ezagutu balute bezela bere sasoiari alort⁵ ugariak emango zituala sorterriarentzat. Eta etzan izan begitanzio bat.

Baña aurrera jarraitu baño lenago, ona izango da emen jartzea nola dagoan ipiña bere batayoa Andoain-go eleizako liburuetan. Erderatik euskerara biurtua, au da esaten duana:

«Milla seireun eta larogeita amar-garrengo Abenduaren ogeita »bostian batayatu nuan Manuel Garagorri, Domingo Garagorri-ko »eta Manuela Larramendi-koren semea, izanik apaidiñak Juan Echa- »goyen-goa eta Maria Zumeta-koa, eta oartuniyen espirituko aideta- »suna Oarkera. Manuel Garagorri-kok, sarturikan Jesusen Lagun- »dian (Jesuita) aldatu zuan bere izengaiña Larramendi-rena arturik.»

Ziur eztakigu zergatik izango zan bigarren izengaiña lenen-goari aurreratutzia: aitatu degun izkribu orretatik ateratzen dan

1 Gotiritza=Pretension.

2 Estilo.

3 Leñargia=Noble.

4 Purugabea=Solariega.

5 Alorta=Fruto.

gauza da Jesusen Lagundira sartu artean deitua izan bear zuala Manuel Garagorri, izen orreta-ko baserrian jayo zan seme argido-tarra; baña Loyola-ko liburutegian arkitzenda beste eskuzkribu bat, irichiz A. Manuel-en lagunen batek egiña, eta an dio Larramendi deitzen ziotela Ernani-n, nora izan zan eramana, umechua zala, eskolan ikastera, eta izengaiñ onekiñ jarraitu ziotela deitzen gerora ere, bere aitaren eta onen aldeko aide-en sentiera andi batekiñ. Askozaz ese ezagutuago daukagun gauza da, bere lenengo urteetatik erakutsi zuala aditza argia, jakin-nai neurri gabea, eta bere galdeerakiñ lortu zituala gauza askoren ezaguera zakonak.

Ala ikusi zutenean bere guraso eta aideak Manuel-en ekarria, jakintasunarentzat zeukan maitasuna, moldatu ziran eta ipiñi zuten bidean jakintasuneko mendira igo zezan, biraldurikan lenengo ikaskizunen billa Bilbora; bada an zeukan osaba bat Jesusen Lagundian. Illuncho badago ere A. Larramendi-ren bizitzako lenengo zati au, ezkutuan badago ere gauza chiki eta utsak oidiran antzera, dakigulako gerora agertu zituan ziadi¹ ta jakindea, esan genezake bildurrik gabe, erakutsiko mala sasoi onetan Manuel-ek ziadiaren chinparta, ikasle guztiak erakusten duten bezela zer gerora izango diran.

Jakiña da gurasuak beren semiai dioten maitasun samurra; jakiñak dira semechuentzat egiten dituzten andi-amesak. Garakorri-ko baserrian ere egingo ziran, ikusten zutenean Manuelcho añ azkar ta argia. ¿Nork pensatu neguko gabaren lenengo orduetan Manuel-en aita eta amak sutonduan idukiko zituzten asmuak? Baña ordurako bazebiltzan ark ere bereak: ordurako ikasi zuan zala kia bezela, utsa zala munduko andi izatea, eta etzan bere biotz leñargia gauza utsarekin betetzen zana.

II.

MANUEL-EN BURUBIDEA.

Gorputz lerden ta lirañekua, indartsua, arpegi ederrekua; baña bere begi eta kopetan distiatzen zala Jaungoikoa-ganako zeukan amodiuaaren argi-errañua, aurkeztu zan Bilbon, ikastegiko atariyan, Jesusen Lagundi-ko soindoña-ren² eske, oraindikan amazapi urte etzeuzkan artean.

1 Ziadia=Ingenio.

2 Soindoña=Sotana.

¡O! ¡Jakintasunezko zér agergarri ederra eman zuan Manuel-ek, eskeintzean Egille Altsua-ri bere gaztetasun loratsua, uztean mundua, uztean echea Jaun eta Jaungoikoa obeki serbitzeagatik! Chit asko dirade esaten dutenak gaztetasunari eman bear zayola zor zayona (eztakit nola dan zor au); eta uste dute naikoa dala Jaungoikoarentzat bizitzaren azken aldera, besterik eziñean, ematia zer-bait..... ¡Erokeri eranzia! ¡Lotsagabekeri berdin gabea! Orrela itz egiten dutenak aztu dira jayuak gerala, Jaungoikoa maitatzeko eta serbitzeko; aztu dira zartza bezela Jaungoikoarena dala gaztetasuna ere; orrela itz egiteri dutenak igaro nai dute Jaunaren kontra Jau-nak emandako bizitzaren zatirik onena.

Manuel-ek ezin zezakean iduki eskergabetasun añ itzala, bazekian zeukan guztia zor ziola Egillea-ri. Zor au pagatzeko ustetan sartu zan Jesusen Lagundian milla zazpireun eta zazpi-garren urteko Azaroaren seian. Onetarako agurtu biar zituan betiko gurasuak, aideak, baserrichoa, ainbeste oroitx gozo gordetzen zituzten leku eta gauzak eta ¡agur! egin zien danei. Maitatzen zituan biotz barretetikan gauza abek, baña gogoratzen zan Jesukristoren esanaz: *Qui amat patrem aut matrem plus quam me non est me dignus*, eta Jesus zan beste dana baño lenago.

Izan zitezkean norbaitzuek, lurreko jolasetara emanak, erruki ziotenak Manueli, gordetzera zijoalako bere gaztetasun ikusgarria; bai ta ere izan zitekean Manuel-ek bere aldetik idukitzea onelakuen errukia, eta berakgatik eleiz-bazterchoan pake santuan, burua makur eta biotz isiotuarekin jasotzia Zeruronz orazio bizia.

III.

SARBERRIA ETA IKASLE JESUSEN LAGUNDIAN.

Bilbo-ko ikaslekuan lenengo pausoak eman ta bereala biraldu zuten nagusiak Billagarzia esaten zayon Gaztekerri-ko bedoitegira,¹ nun jarraitu zuan munduko autsa kendurikan, apaintzen bere arima birtute guziakin. Andikan joan zan Medina de Kanpo izena duan errira arantegiak² eta egokindea³ ikastera. Leku abetan ikasi zuan isiltasuna, menegindea,⁴ orazioa, nor bere burua ukatzea; leku abetan erakutsi zuan jakintza mota guzietan gayera, gallurtzen zala ikas-

1 Bedoitegia=Noviciado.

2 Artes.

3 Filosofía.

4 Obediencia.

lerik onenen artean; baña ezkututzen zuala bere jakinde guztia mo-destiako jantzi añ onirizgarriarekiñ.

Gerora juan zan Jainkokindea¹ ikastera Salamanka-ko ikasleku izen andikora, eta an agertu zituan ostera bere gaikera eta ziadia, eta bertan izantzan ezagutua bere denporetako jainkokindari² one-netzat.

Nola umiltasunian sustrai zakonak egin zituan, ezertan ere etzan iñoiz iduki lagunak baño geiagotzat, eta ikusi oi zan eskoletako egarkietan³ arrazoi sendoakiñ estutzen, mutututzen zituana, añ atse-gintsu eta malsoa zebilela eskoletatik kanpora.

Lagun ikasle guziak baño geiago zan bere maisu A. Luis Losa-dak zionez. Aditzarik andienetakoa, oroitzarbat zan; baña, boron-date utsa, onen artian onena, arima eta biotz andi eta zintzokoa, al-gabekoa gauza dollorretarako, gauza onetan geien egingo zuana bazan ere.

Nagusiena izanik, beti egiten zuan bere burua azkenengotzat, ezeretzat. ¡Zein egia dan jakintasun benetakoa eta umiltasuna beti egon dirala elkartuak, anayatuak! ¡Zein ederki ikasi zuan A. Larra-mendik Jesukristoren esakera ura: *Qui se exaltat humiliabitur, qui se humiliat exaltabitur*. Orregatik goratu zuan Jaungoikoak, orre-gatik alchatu bear degu guk ere bere izena, ikusi dezaten mundu guztian.

IV.

A. LARRAMENDI ERAKASLE.

Ikaskizun guztiak bukatu zituanian, bere nagusien aginduz asi zan erakusten. Lenbizi erakutsi zuan iru urtean Jainkokindea Sala-mankan, laguntzalle bezela. Orduan, jakindezko gudetan añ goi jarri zan ezen, esaten zutenez, etzan jakinguziakiko toki artan ordura arte ikusi guda zorrotz eta argitsuagorik.

Gero Palenzia-ko probintzian eta Balladolid -en izan zan Maisu, erakutsiaz egokindea Jesusen Lagundiko semiai, eta biurturik berri-ro Salamanka-ra igaro zituan oraindikan iru edo lau urte erakusten.

Izanik ere añ zakon ta entzungarriak bere eskoletako erakutsiak, denpora billatzen zuan oraindikan Jaungoikoaren itza sermoitegiko

¹ Jainkokindea=Teología,

² Teólogo.

³ Disputas.

leku santutikan aditzera emateko, eta añ modutakuak izaten ziran bere sermoiak ezen, Ikastegi nagusiko maisuak, Eleiz nagusiko gizonak, jakintsu danak eta erri guztiak zeukaten maisu gañ-gañekotzat bezela.

Ara A. Larramendi-ren erakutsi eta sermoiakgatik zer esaten diguten jakintsu bik. A Juan Agustin Arzac eta Echeveste, San Bartolome-ren ikastegiko nagusiak dio: «Maisutzako lanetan saya-»tzen da Salamanca-k dakizkian eta zabaltzen dituan menandeare-»kin,¹ ukatzen eztala ere sermoitegiko lanetara eta akiatzen dituala »onetan poz andiarekin aitzen dioten aditzalle ugari eta erizmata-»riak.»² On José Larrumbe-k esaten du: «Eskoletako jarrilekuan eta »sermoitegian, nora deitzen dioten bere jakinde ta artapenak jairik »andienetan, irabazi ditu mundu guziaren chalo ta dunduria, dira-»lako añ andiak bere doaiak gauza bat eta besterako, ezen, dudan »gelditzen da bat bere burua geidea edo gañezten ote duan biyetatik »baten.» Gañera len aitatu degun Loyolan daguan paperaren izkri-»bitzalliak dirauzku. «Iru ordu laurden edo puskabat geiaguan esa-»ten zuan amabost edo amazazpi orritan letra zeziarekin izkriba-»tutako sermoia añ garbiro ezen, sekula etzan moteldu eta etzaigu »galdu itz bat bakarra: añ biziró eta sinisgarri ezen, bere esanak »gelditzen ziran luzarorako eleizako orma eta biyotz guztietan, eta »eramaten zituan naizuan erara aditzalleak. Zan sermoitegiko, Es-»pañia guztiko turunta. Farre eta negar denpora laburrian zekian »erabiten eta lan guchirekin ikaratuko zuan mundua bidalde edo »misioetara eramaria izan balitz. Egon zan anaiaren bat esan ziona, »eta berak eranzun zuan: etzeturrela ongi zeregin santu ori bere boz »eta bizitza epelarekin.»

Doaya oekgatikan zabaldu zan A. Larramendi-ren jakinde eta esanederraren izena erri ta erbestian, eta billatu zituan jakintsu-adiskide asko leku guztietan.

V.

ERREGIÑAREN ERAITORLE.³

Omenaren⁴ turuntak eraman zuan A. Larramendi-ren izena erregiaren jauregira ere. Zan orduan erregiña Ona Ana Maria

1 Menandea=Crédito, estimacion.

2 Criticos.

3 Confesor.

4 Omena=Fama.

Newburgokoa, Karlos II garrenaren alarguna, zeñak ezaguturikan A. Larramendi-k zeukan jakin-zabal eta zogiaren¹ izena, nai izan zuan eraman autortzalletzat bere aldamenera. Eskatu zuan, bada, mesede au Jesusen Lagundira, nagusiak agindu zioten A. Larramendi-ri juan zedilla eta bere eche; erri, guraso ta aideak utzi zituanak Jaungoikoa-ren borondatea egi teagatik, Jaungoikoak nagusien bitartez erakusten zion borondatea berriz betetziagatik utzi zituan poz pozik Salamanca-ko uria, ikastegia, ikasleak, itzaldiak, lagun jakintsuak, eta, arturikan agintarien bedeinkazioa, juan zan Toledo-ra 1730-eko urte aldera.

Bein geiago ukatzen zuan borondatea, bada etzan berea jauregiko gizonakin laguntzia, ikastegi eta sermoi tegietan bere burua argitzea etzan bezela.

Erregiñaren eraitorletzako zeregin arduratsua bete zuan zogi², batzuek diotenez³ Jaungoiko guzien Egille, Errege eta Jabiak kontu ematera deitu zion artean; beste batzuek esaten digutenez⁴ bakartasuneko maitasunak utzi eragin zion. Dana dala, bitarteak etzituan alperrikan galdu. Autortzen ziran A. Larramendi-rekin, zuzenbide-tzen zituan beste asko ere, chit poz andi bat artzen zuala lan santu onetarako ematen ziotenian gaya pobrecho lagutzitu⁵ ta zikiñez betéak.

Au bere lekua ezpada ere, sasoi onetan zeukan arantzazko ardura onetatik zetorrelako emen jarri bear det gerora A. Larramendiri gerta zitzaion gauza bat, nun erakusten duan jaun onek bere arimako beregandea.⁶ Bayona-ko ostatu baten zegoan bein España-ra biurtzeko bere gauzachoak arau tu tzen,⁷ aurreratu zitayozkanean esatera pagatu bear zuala ordu batzuen barruan diru pilla andi bat, zor zuana, esaten zutenez, erregiña-ren eraitorle izan zan denporetatik. Esan zioten gañera, pagatzen ez bazuan bereala diru ura katigatuko ziozkatela bere burua eta ondasunak, etazeukala ordu artatikan echea edo uria presondegitzat.

Esakera abek aditu zituanean, batere aldandetu⁸ gabe eman zituan bear ziran arrazoiak, agertuaz zor ura erregiñarena zala eta chit

1 Zogia=Prudente.

2 Prudentemente.

3 Vidas de algunos esclarecidos varones guipuzcoanos de la Compañía de Jesus, 266-ko orri aldean.

4 Loyola-n dagon aitasun gabeko eskuzkribu Euskal-Erria-nargitaratuak dio:.. «Lo pue es cierto y sin duda, es que él mismo se despidió y le costó mucho la licencia ó el permiso de S. M.: y que el amor del retiro y de sus libros le obligó a la despedida.» Au berau A. Fitak.

5 Laguntzitia=Desvalido.

6 Beregandea=Serenidad.

7 Arautu=Arreglar.

8 Alterarse.

zarra; iñork etziola egun artara artean erakutsi, baña egingo zuala alegina España-ko Gorteak pagatu zezan zor ura, egiazkoa bazan. Etziran orregatikan paketu frantzes aek eta orduan A. Larramendik irribarrez esan zuan: «Jaunak, ondasunik ez det jantzi puska abek baikik; juezak egin beza nai duana nerekin eta nere gauza auekiñ. Katigu naiz, eta ustedet mantenduko naizala eskale bezela, nere erregiñaren denboran uri onetan egin nituan mesediaz iñor gogorutzen ez bada ere.»

Erregutu zitzaionagatik, etzizayon atera arregura¹ bat, ez alkatte, ez Obispo, ez bere ezagun probinziako Agintari, ez beste adiskiderik ikustea bitartekotasunerako: egin zuan gauza zan betiko erre, gua pake oso osuan.

Azkenian ere, berarekin zegoan Lagundiko Aita batek juan biar izan zuan probinzia guztiko Agintariagana, zeñegandik, ainbeste errieta edo aserre eginta gero, lortu zuan urratutzia katigatzeko agindea zeukan papera. Baña A. Larramendik etzuan erakutsi azken onekin ez pozik, ez samiñikan; batere gora-bera gabe ikusi zuan gertaera onen asiera, batere estu-nasai gabe artu zuan bukaera.

Gertaldi onen dakirasak² izan ziran A. Domingo Patrizio Meagher, Salamancako maisua, euskal-biursari jostallua, eta A. Pedro Zabala Pontevedra-ko ikastegiaren nagusia.

VI.

A. LARRAMENDI LOYOLA-N.

Erregiñanren eraitorle izatea utzi zuanean, nola makal samar sentitzen zan, biraldu zuten nagusiak Loyolara. ¡Zer atsegintsua etorriko zan A. Larramendi utzirikan Erdalerria Euskal-erriagatik, utzirikan munduko bizitza, bakartasun santuagatik, utzirikan erregiñaren jauregia A. Iñazio santuaren jayotecheagatik!

Baña etzan etorri bere nekeetan atseden bat egitera. Jarraitu zuan autorrerako sakramentuaren bitartez kristauak zuzenbidetzen, Loyola-n eta probinzia guztiko errietan bere itz liraiñaren bitartez Jaungoikoarentzat arimak irabazten, megopeko³ ekersiaren⁴ bitartez *konzienziak* adrastutzen, bizi izan zan arte guztian. Eta dena Jaun-

1 Queja.

2 Testigos.

3 Megopea=Espíritu.

4 Ekersia=Ejercicio.

goikoaren doakunde edo *gloria* geiagorako, Jesusén Lagundiko banderan añ ederkiro izkribatuta dagoan bezela.

Baita ere denbora onetan izkribatu zituan liburucho batzuek España¹ko dierrria² ordurako nastutzen asi ziran fedatzaien³ kontra, denbora onetan euki zuan eskutitzen eranzukida³ andia leku askotako jakintsuakin; denbora onetan artu zuan Franzia eta Italiatik etorri zirau beste batzuen ikustimena.⁴

VII.

A. LARRAMENDI-REN IZKRIBU-LANAK.

Toki estuak ziran gizon garai onen tzat ikasleku eta sermoitegiko neurriak: bere izena etzan kabitzen Salamanca-n, etzan kabitzen España-n; bere jakintasuna ezin zitekian gorde; Jaungoikoak eman zion munduaren onerako eta munduaren onerako begoitetu⁵ bear zan.

Ala, Salamanca-n zegoalarik, izkribatu zuan liburu eder bat izendatzen zuana:

1.^o *Tractatus de controversiis divinæ gratiæ adversus janse-nistas.*

Lan onetan erakusten du egilleak jainkokindean zakontasuna, ziadi izugarria eta eralde indar bizikoak Franzia-ko Jansenio Quesnel eta Febrioniotar fedatzai berrien kontra⁶ ¡Urrikaltzekoa da liburu bikaiñ au ez argitaratzea fedatzai oek ainbeste gaitz egin baño len munduan!⁷

Ara beste latinez egiñak.

2.^o *De systemate scholastico scholarum catholicarum*, nun egiten duan alegin guztia elkartzeko adiskidero *katoliko-en* eskolak, bere gauza guztietan ikusten dan ziurrera eta egokeri andiarekin. Liburu onen gaya, dio A. Fitak, izan liteke: «Bear diran gauzetan batasuna, dudabuetan pairua,⁸ danetan karidadea.»

3.^o *Fides greca galorum*, frantzes fedatzaien kontra.

4.^o Beste izena ez dakigun bat dierri artako estuzaleen irichi berrien kontra.

1 Nacion.

2 Fedatzaia=Hereje.

3 Correspondencia

4 Visita.

5 Invertir.

6 Vidas de algunos varones ilustres de la Compañía de Jesús.

7 Lan au eta urrengo bostak argitaratu gabo dirade oraindik.

8 Moderacion.

5.^o *Concordiæ phisicæ prædeterminationis ac scienciæ medicæ.*

6.^o *De gratia suficiente et efficaci excerpta*, el P. Gabriele Daniele.

7.^o *De Constitutivo diviniæ libertatis.*

Erderaz egin dituanetatik ezagutzen ditugu: 1.^o *Antigüedad y universalidad del bascuence en España*. Granada-ko dukeai donkitua. Au da Larramendi-ren lenengo egintza chit ona.

2.^o *Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantábría*; cuestión decidida si las provincias de Bizcaya, Guipúzcoa y Alava estuvieron comprendidas en la antigua Cantábría.

3.^o *Corografía, ó descripcion general de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa*. Emen argitzen du Gipuzkoako kondaira eta ziazaltzen¹ du probintzia guztia, ibaiak eta ichasua, baliaren arrantza, iturriak, aizea, mendiak, bideak, uztak, sua, burnitegiak, uri ta baserria, erondea² batzarrak, ekautuak³ errien anaikadeak, uritzai-lea⁴ eleizgizonak, serorak, donedea⁵ Gipuzkoako leñargia, leñargi akiatua eta Aide nagusiak, Gipuzkoatarren gorputz eder, alaidetasun, ziadi eta griñak, ondasunak eta bizimoduak; Caracas-ko Laguntza erregezkua, jantziberriak, obiratzeko oiturak, jaiak, jostaetak, tanbolin-dantzak, euskeraren itzera danak; bukatzen duala ekado-yez⁶ doanditzen Gipuzkoa-ko semea.

Liburu onetan geien ikusten da A. Larramendik bere erriari zion maitasun andia.

4.^o *Araua*⁷ edo neurkida argi, zuzen eta santuak berak aukeratu eta zaintu zituan mojentzat egiñak.

5.^o *Nueva demostracion del derecho de Vergara*, S. Martiñ erri onetakoa zala eskudatzen.

6.^o *Notas al manifesto de Beasain*, gauza onen gañean.⁸

7.^o *Disertaciones y dudas sobre las obras de Mayans, de los diaristas matritenses*, etc.

8.^o *Conferencias curiosas, políticas, legales y morales sobre los fueros de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*.

9.^o Ezin kontatu ala liburu chiki:⁹

1 Ziazaldu=describir.

2 Gobierno.

3 Diputados.

4 Gobernador.

5 Religion.

6 Merecidamente.

7 Reglas.

8 Vidas de algunos esclarecidos varones de la Compañía de Jesus-en egilleak dudatan paratzen du lan bi abek A. Larramendi-renak diran edo ez.

9 On Juan Ernesto Delmas-ek beste A. Larramendiren eskutitz, liburu zati eta paper askoren berriak ematen ditu «Euskal-Erria» ren VII garren liburuko 305,306 eta 307 orri-aldietan.

Euskeraz:

- 4.^o A. Astete-ren dotriña, euskerara biurtua.
- 2.^o A. Mendiburu-ri izkribatu zion eskutitz chit bikaiñ bat.
- 3.^o Eleizako Erakasle aundi S. Agustiñen doanditza.¹

VIII.

EL IMPOSIBLE VENCIDO.

DICCIONARIO TRILINGÜE

Naiustez aitatu ez ditut aurrerago A. Larramendiren lanen artean liburu eder bi oek: liburu oekgatikan zabaldu da geyenere jakindun onen izena, liburu oekgatikan batez ere izan da doanditua A. Larramendiren jakintasuna. Eta arrazoiz.

Gauza oso gaitzat, ezingarritzat zegoan euskerazko itzeginda² moldatzea, eta siniste au osoan egiya ez bada ere, zati batean bada, zergatik A. Larramendirentzat ez bazan beste batzuentzat bai zan ezingarria.

Orretarako jakin bear da Euskal-errian iñork etzuala itz bat izkribatu gai onetan. Erri andi onek seme jakintsu, ziaditsu eta argi asko bazituan ere ¡miña det esan bearra! chit guchik zekizkiten euskeraren, beren izkuntzaren edertasunak; jakin bear da gauza onetarako iñork ere etzuala eman lumada bat eta lutartea³ zegoala oso landu eza.⁴

Bear zan bada alainzo⁵ bat zeukana indarra naikoa gaitztasun eta neke guztiak goituzteko; bear zan biotz bat erriaren maitasunez be-tea, eman zezan erri onentzat bere jakinde eta argia, naiz ta beste gauza askotan obeki erakutsiko zana. Eta sortu ziran alainzo eta biotz au A. Larramendiñ, eta jaun onek lortu zigun *El imposible vencido* jarri zion itzeginda.

Oi diragai ez diranak gauza on bat egiteko; baña bai bestien egintzetan utsaldien billa sayatzen diradenak, edertasunai begiratu gabe. Orregatikan A. Larramendiren itzeginda onegatik askok esan dute ez dala lan ongi bukatua, utsaldi asko dituala, Izan liteke egia,

1 Doanditza au ez dakigu ziur nun esana den. Ote zan diote Azpeitian, Mutrikun, Mendaron Plazenian edo Ernanin, leku oetan S. Agustiñen alabak diralako. S. Franzisko-ren seme A. Ignazio Egiak du Aranzazu edo Zarauzen lau onen lenengo ezkuzkribua.

2 Gramática.

3 Terreno.

4 Inculto.

5 Talento.

egia da benetan utsegiteren batzuek diradela lenengo izkribatu dan itzeginda onetan; ¿baña nor da diña lenengotikan gai añ aztunean egiteko gauza bat amaitua, obetandua?¹ ¿Ezta egia lan au izan dala beste onelako lan guztien iturria? ¿Egia ezta milla gauza ez genekizkienak erakusten dituala? ¿Zer geiago eskatu liteke?

A. Larramendi etzan arrotua geratu egintza au azkentzean: autortzen zuan geiago egin zezaketela beste batzuek Gipuzkoako probintziari esaten dionean: lotsaz edo aalkeriz artu zuala lan onetarako artapena eta geratzen zitzayola atsekida,² (lan au) berea izateak lagunduko zualako euskeraren izen onerako, bada Larramendiren urrigoak³ argitaratu bazituan izkuntza onen apainduria añ andiak, erraz ezagutzeko zala zer izango zan lenengo egilleakizkuntza au egiten euki zuan manea⁴ gai onetan asten zanean ziadi obe bat, obeki zekiana zakontzen eta argitzen.» A. Larramendik esaten du itzegindaren asieran: «ezagutzen dituala egintza onetan utsegite asko eziñ dituanak zuzendu, zegoalako urruti bere erriagandik, nun geyago ikasi zezakean;» baña iñork ezin lezake ukatu orregatik itzeginda au izan dala ondorengo guztien argia, A. Larramendi-k egiten ziola erriari iñork ordura artean egin etzion bezelako mesedea, erakutsi zuala bide bat bear bazan euskaldunak ere etzekitena.

Chit ederki dio On José Larunbe len aitatuak:..... «eta ni izkun-»tzan ekinaritua⁵ banintzan ere, nintzan gauza ori (itzeginda izkribatze) ezingarritzat gendukadetatik bat; eta ikusirik oraiñ egiña añ »somaro⁶ eta ederkiró, autortzen det merezi duala daraman izena, »eta bere egillearen ziadi izugarriak dakiala goitutzen ezingarriak.» A. On Juan Domingo Arzac-ek:.... «Eta gauza, guztiak zor badiote »argiari bere izatearen zati bat, bada argi gabe elirake billatuko bere »edertasun ta apainduriak; asko zor dio euskal-izkuntzak A. Larra- »mendi-ri, zeñen ziadiak agertu eta argitu »dituan izkuntz onen edertasunak»

Azkenez, Lardizabal-en itzegindaren asieran On Ramon Gereka-koak esaten badu ere eztala A. Larramendirena edozeñek ikasteko egiña, baizikan euskeraren eranzukia⁷ bezela, autortzen du: «Au ez »da esatea A. Larramendi alperrikan nekatu zala egintza au izkribatzen, kontrako aldera egin zion ekurte⁸ aundi bat askijakindeari⁹

1 Perfecto.

2 Consuelo.

3 Cortedad.

4 Arte.

5 Práctico.

6 Acertadamente,

7 Apología.

8 Servicio.

9 Filología

eta beste bat Euskal-erriari; zergatik bere laguntasun gabe chit »gaitza izango zan arkitzia gizon bat añ ukatua eta erri-maitekoa »naiko zana eman jakintza añ legor eta irabazi guchikora. Lan »onen egilleak (Lardizabal-en itzeginda-renak) obotande zerbaitekin »izkribatzeko begiratu izan bear zuan bestea (A. Larramendi-rena) »bere lan nekatsuan zuzenduko zuan argi bakarra bezela, eta lagun »tasun au gabe bear bada etzuan idukiko indarrikan asteko eta guchiago amaitzeko.»

Eta ¿zer esan genezake beste egintza *Diccionario trilingüe* edo *Iru izkuntzetako* iztegiagatikan?

Euskaldunen biotza poztutzen da irakurtzean Iztegi onen asierako eranzukia¹ chit aberatsa, oso betia berri on eta ezjakiñakin; miraritzen da ikustean ainbeste arrazoi egoki eta indartsuak erakusteko euskera izan dala España-ko dierri.² danaren izkuntza, agertzeko euskeraren amatasuna; gozatzen da Mayans ta Armestori ematen dizkien eranzuera zorrotzakin, jartzen duala euskera añ goi-eta tontorrián.

A. Larramendi-k izkribatu ezpalu ere Iztegi aurreko asiera andigoi, garai au baizik, naikoa zan bere izena illezkortzeko jakintsuen artean, geiegi zan bere izena gordetzeko Euskal-erriko izenik maiteena bezela.

Baña gañera izkribatu zuan euskeraren Iztegia. ¿Nor ezta miraritzen gizon baten neurri gabeko lan onen aurrean? ¿Nork ez du ezagutzen iru itzerako ainbeste milla itz banan banan zuzentzen araututzen dagon nekia? ¿Non irakurriko zituan A. Larramendi-k euskerazko izkribu esleituak? ¿Noren laguntasuna zeukan? ¿Zembat jira-bira egin berako etzituan Gipuzkoan, Bizkayan, Araban, Napparroan, Franziako euskal-errietan, urietan, baserrietan, mendiyan, basuan? ¿Zenbat galdeera alperrikakoak askotan, jakiteko gauza guzien izenak?

Lan onetan ere A. Larramendi-k esaten du daukazkiela gauza asko zuzentzeko eta obetandetzeko; baña zeñek lenengotikan bukatu du osoro onelako egintza bat? Beste izkuntzetan ainbeste urtean, ainbeste laguntasunekin, gizon jakintsuen batzarrak egiten ez badute gauza bat obetandua ¿nola egin lezake gizon bat bakarrek?

Ongi dator emen Mogel-ek diona: «Denborak obetandetzen ditu »egintzak. Larramendiren lanarekin geratu ezpafiñá lo-tan eta bai »jarraitu lanian, beste irabazi batzuk zeukazan gaur gure izkuntzak.»

1 Apología.

2 Nacion.

IX.

BIRTUTEAK.

Gai onetan bidakiñez¹ zerbait esan degu. Orain utzi zayogun itza bere ondoan bizi izan zan lagun edo adiskide Loyolako esan degun eskuzkribuaren egilleari.

Erderatikan biurtzen det: «Eztet ikusi gizon bat jakintsu eta arna- »satsuagorik eta bide batez umill eta makurragorikan. Milla bider »aditu nion esaten zileikinde² eta gomarako³ gauzetan: «¿nik zer »dakit gauza onetan?» Eta ala ere etzuan utziko eranzuera eman »gabe eta ernaten zuan muga zuzenkiró, zirudiala esonde⁴ oneko »aingerua. Inoiz amaitzen zuan onela: ¿Zér egin zuan berorrek edo »¿zér egitera eta erabakitza dijoa? eta aditurik eranzuera, azken- »tzen zuan esanarekin bai edo ez chit egoki: beste batzuetan: «au bai, »bestea ez, edo egiñ bedi onelako gauza, eziñ obeto erabaki zitekean »gisará.

»Beñere etzekian gaizki esaten, ezta bide eman ta irainatuta ere. »Bere mingañ garbian S. Antonio bat zirudien. Nik eztet mingañ »onen berdinikan ikusi eta ogongo balitzake denbora juanda galdu »gabea eta berrira ere, neri eliket indar andiririk eta chikirik egingo, »zergatik mirari andiagoak ikusi ditut bera eta jabia»gan. Au beran »diot bere biotz eta buruagatikan,

«Ikusi nuan, menegintzen⁵ gozoró nagusi zar eta urdurituai gauza chit gaitz eta estuetan, beñere arregura eta mingoztasunik erakutsi gabe.

»Ikusi nuan, egonikan chit irainatua,⁶ gizon ezagun bat iraindu »tzat zegoana arrenberritzen⁷ eta estutzen itz abekin, »zeintzuen »eramailia ni izan nintzan: Eskatzen diot Jesukristogatik aditu »dezaidala eta artu dizkiola berorren onirichiko dakirasak⁸ eta eztet »esango geiago: *Jauna, nator askitóa⁹ ematera eta eskatzera »danoen aurrean barkazioa berori keisatzen duan edo bestiak dio-*

1 De paso.

2 Moral.

3 Prudencia.

4 Consejo.

5 Obedecer.

6 Ofendido.

7 Instar.

8 Testigos.

9 Satisfaccion.

»ten iraiñagatik, naiz egiak, naiz gezurak izan. Barkatu bezait, D Jauna, Jaungoikoa-ren amodioagatik eta ken dezagun zer esana »erritikan. Au onela egiñ zati, baña ezer etzan aurreratu berriz »erakitzzea¹ baizik. Ala ere juramentua egiñ nezake A. Larramen- »dik itz bat etzuala atera eta geratu zala irribarrez

.
»Beste gauza guzietan baño obeki erakutsi zuan A. Larramendi-k »bere donedea² arimaren alaiara, errazkidea,³ umiltasuna eta beste »birtuteak, bere izkribuakiñ gertatu zitzaizkan gauzetan.

»Egintza asko luzaroko denporak kostatu zitzaizkan, batez ere »batzuek jakin zabal eta lan andikoak eta beste batzuek denpora »neurtu eta aldegoi⁴ estuetan egiñak. Denak ziran bere aditzan sortu »eta kopetako izerdiakiñ egiñak; eta norberaren egintzak, egilleak »sortu eta atera dituan gauzak, maitatzen dira gurasoak beren »umeak bezela; askozaz geiago oraindik, zergatik bitartzen diran »izen onaren begirunea, onorearena, omenarena, eta beste onda- »koak.

»Alaz guztiaz ere bere jakin zabal eta ziadiaren apainduriagatik, »bere argiakoa tik denpora aietako goyante bezela ezagutua izan »bear zuan eta askogandikan izan zan gizon andi onek, menpetu »zituan egintzak eta berakin aditza, borondatea ontasun eta onorea »adiskide eta etsayai, donedeari⁵ eta ganutzari⁶ arrazoiari eta arra- »zoi gabeari. Egoitzako arrazoiari eta beste batzuei, iritaraua⁷ edo »dierrikuai,⁸ denporakuai, gaiztakerikuai, gizonen ajolgabe eta iriz- »penai, gizon andi, chiki, bitarteko, eta noaski nano, eta badaezpa- »dakuai, aitzen etzatenai eta griñadunai; eramanean amaigabeko »pazienzia eta umant baten beregandeariñ bere eskuzkribu ba- »tzuek tildatu ta obetutzea, beste batzuek berandutu eta alperrik »galtzea, eta asko, onenak bear bada, bizirik lurperatzea. ¿Zeñek »ikusi zuan aldaezgarritzen orregatikan? Edo ¿non aitu zitzaion »gaizki esan edo keiña-bat, chist bat gauza añ maiñati eta sentiko- »rrian, beñik beñiñ azkenengo amabost urte oetan?»

Ikusi genezake gauza onen gañean A. Fita-k diona;⁹ baña ¿zer geyago esan genezake gizon baten doainditzan?

1 Desairar.

2 Religiosidad.

3 Docilidad.

4 Circunstancia.

5 Religion.

6 Siglo.

7 Política.

8 Nacion.

9 «Galería de Jesuitas ilustres.» Madrid, 1880.

X.

BEATI MORTUI QUI IN DOMINO MORIUNTU.

Bere lanetara geyen emana zegoanian Jaungoikoaren gloriarako, igarri zuan deitzen ziola Jaun letartiyak neke, samintasun, naigabe ta eramankizun guztien sariya artzera; igarri zuan aldean zeukala eriotzako ordua.

Ordu onen zai nola zegoan aspaldian; eman ziozkan eskerrak Jesusen Biotz chit santuari, zeñen maitatia izan zan beti eta gertatu zan bear bezela, justuak gertatzen diran pake santuarekin.

Inguratu zuten malkotsu eta estutuak echeko guztiak, eta danen erdian. A. Cardaberaz eta Mendizabal adiskideak laguntzen ziotela, eta baita ere inñolaz zeruetako aingeruak, bere mingañetan erregu labur eta gozuak zirala Jesus eta Maria-rentzat, eman zion bere arima Egilleari 1766-ko Ilbeltzaren 28-an.

Il zan jakindun izugarri au, itz lirañeko gizona, gudalari garaitetzgarria,¹ euskal seme argidotarra, erriaren maitale bizia, euskera-zaleen argia, A. Larramendi goyanta² Jesusen Lagundi-ko eta Gipuzkoa-ko doakundea³ 76 urte zituala, zeintzuetatik igaro zituan 59 Jesusen Lagundian.

¡Zorionekoak azken orduan bere bitzitza guztian jardun dutenak gudaken arima-ko etsayak azpiratzeko! ¡Zorionekoak azken orduan Juungoikoak emantako bizitza dana igaro dutenak gatazkatzen Jau-naren alde, egiagatik sorterriaren onerako! ¡Zorionekoa zu, Aita Larramendi; bizi izan ziñana arima birtutez apaintzen, Jaungoikoa maitatzen! ¡O! ¡Zer paketsua dan, zer gauza goma dan eriotza, epaya eman biar duana besa maitatzen bizi izan danarentzat! *Beati mortui qui in Domino moriuntur.*

BUKAERA.

Il zan A. Larramendi, igo zan, egatu zan betiko gozotasunezko tokira. Bere eriotza esana eta kantatua izan zan izkribu eder eta ber-so lirañetan; iraun zuen kanta soñuak egun batzuetan, baña laster

1 Invencible.

2 Gigante.

3 Gloria.

amaitu ziran azkenengo oyarzunak eta dena geratu zan isiltasun eskergabea.

Gaur, edozeinek talluntza¹ bat daukan denboran, A. Larramendi-k eztauka arri kaskar bat esaten: «*Emen jayo zain euskaldun argidotar bat;*» eta guchi dira dakitenak nun jayo eta ill zan.

Baña ¿zer dio? Bizi dan artian erriaren maitale bat, bizi dan artean euskera-zale bat, bizi dan artean euskaldun benetako bat, ezta aztuko A. Larramendi-ren izena; A. Larramendi-ren izena izango da maitatua eta bedeinkatua.

DOMINGO AGIRRE-KUA.



¹ Estatua.